



Biañezko eliza zaharra (Karrantza Harana / Valle de Carranza)

Eraikina

Biañezko San Andres eraikina Karrantza haraneko (Bizkaia) parrokia da. 1885ean Romualdo Chávarrik (ongilea) eliza berriaren eta eskolen multzoa inauguratu arte, hemen deskribaturiko tenpluan egon zen; hori, harrezkero, hilerriko kapera izateko erabili zen.

Biañezko eliza zaharrak bi zati ditu: burua eta nabea. Horrek ez dauka gangarik, baina elementu interesgarria dauka: portada gotiko puntaduna, apaindurarik gabea. Burua altuagoa da; kontrahormadun bolumen kubikoa da, gangaren presioari aurre egiteko; gurutzeria gotikoko sistema da, lau puntako eta bost klabeko izarra, eta erdikoa berriro pintaturiko armariarekin apainduta dago (irakurri ezin den armaria). Inguru horretan bi kofadura ere badaude: aurrealdean, itsuturik, trazeria flamigeroko orakulu oso itxia dago; bestea, hegoalderantz, puntadun lukana bikoitza da. Hori guztia XV-XVI mendeen arteko mugakoa da, lurraldeko berezko estiloan.

Pintaturiko erretaula murala

Aurrealde osoa okupatuz, pintaturiko itxurazko erretaula garatzen da, erretaula ligneoaren atzean ezkutaturik zegoena. Horren egiturak honako elementu hauek ditu: bankua, errebankua bi solairu eta atikoa, hiru kaletan, albokoak apur bat zabalagoak, ohikoaren alderantziz. Kaleek pilastra poligonlak dituzte, perspektiban ikusten direnak, oholtzak eurak bezala. Azken horiek landare apaindura dute, baita akantoak, animaliak, etab. ere, eta motibo geometrikoak dituzten eremuak ere bai.

Itxurazko erretaularen egitura hori informazio grafikoarekin estalita dago, Pasioari buruzko historiak. Horrenbestez, batik bat narratiboa da. Zenbait lekutan narriadura nabaria eduki arren, bankuan liburua duen santuaren irudia ikusten da, eta horren eskuinetara beste hiru santu daude: bata, San Anton, makilarekin eta oinetan txerria duela; bestea apezpikua da. Errebankuan *Afari Santuaren* dimentsio etzan aipagarria da; mahaikideak erlaizpe itxuran kokaturik daude, identifikazio kartelak gainean dituztela. Ezkerreko etxea *Zigortzea* deritzonerako da. Lehenengo solairuan, historia nagusia *San Andresen Martirioa* deritzonerako da, itxoroskidun gurutzean; alboetara *Kalbarioko Bidea* eta *Ehorzketa Santua* daude. Bigarren solairuan, ezkerretara *Gurutzearen Igoera* dago, erdian *Jaistea* eta eskuinetara *Bosgarren Angustia*, Kristoren gorpua Ama Birjinaren eskuetan ageri delarik. Atikoa *Kalbario* osorako da, Magdalena eta aingeruak ere barne, baita bi lapurrak ere: ona ezkerretara, aingeruarekin, eta txarra eskuinetara, pizti ikaragarriarekin (demonio bat). Beste alde batean, garai horretako zurezko erretaulatan gertatzen den bezala, pilastretako estanzazioak ikus daitezke, baita zaindarien eta osagileen iruditxoak ere (pintatuta), esate baterako, Santa Luzia, Santa Ageda, San Sebastian...

Balorazioa

Foru Aldundiak pinturak berriro egin zituen 1993an; hasiera-hasieratik, horietan exotikoaren balioa nabaritu zen, hori garai horretan ez baitzen oso ohikoa eskualdeko ondarean. Programa handia ere aipagarria da (gutxi gorabehera, 90 metro karratu pintatuta). Bestalde, pinturak bakunak dira eta aurrez daude; ideari dagokionez horren gauzatzeari dagokionez baino hobeak dira; baina debozio eginkizuna bikain betetzen dute. Batez ere, marrazkiak dira, ñabardura gehiegirik gabeko kolore zuriekin, beltzekin eta gorriekin. Pintore zakar eta anonimoak (Biañez, 1535-1540) ondo ezagutzen zituen orduko ezaugarriak eta janzkerak (soldaduenak eta borroeroenak, Karlos I.aren erregetzaren modak gogora dakarzkigutenak); orduko apaindurak ere ondo ezagutzen zituen (Errenazimentukoak); baina alderdi batzuetan ezaugarri gotikoak azaltzen ditu, garai horretako bertako beste zenbait artistak bezala; izan ere, eskualdean pintura mural erlijioso gero eta gehiago egiten ari ziren.

Testua: José Ángel Barrio Loza.



Biañezko eliza zaharra

Karrantza. (*Biañez auzoa*).

Nola heldu:

Karrantza udalerrira BI-630 errepidetik iritsi ondoren, El Callejo auzora heldu eta eskuinetara dagoen desbideratzea hartuko dugu, Biañez auzoraino. Eliza bidearen ezkerretara dago, hilerriaren ondoan.

Bisitak egiteko ordutegia:

Larunbat, igandeak eta jai-egunak: 11:00etatik 14:00etara
Gainerako egunetan aurretik hitzordua eskatuta.
Tf: **699 645 008 / 606 625 581**.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(Karrantza)

- "El Carpin" parke ekologikoa. (*Biañez*).
- El Suceso Ama Birjinaren santutegia. (*El Suceso auzoa*).
- Palotinotarren balnearioa. (*El Molinar auzoa*).
- Lamako trikuharria. (*Lama*).
- Pozalaguako kobazuloak. (*Ranero auzoa*).
- Santa Cecilia eliza. (*Santecilla auzoa*).